

BERRIAK ETA GAI LABURRAK

GURE ILLAK

JEAN ELISSALDE (1883-1961)

Sortzez Askaindarra (1883), Larresoron, Baionan eta Nay-en eskoletua, 1909-an apeztua zen. Jadaneko eskuaraz idazten hasia zen "Eskualdunean", Hiriart-Durruty buru. Uztaritzeko bikario egon zen hamabortz bat urte, gero igorri zuten Liginagarat erretor ta 1932-tik azkenerat Gerezietao erretorgoa egin zuen. Eskualzaleen Biltzarreko buruetan sartu zen 1921-ean eta 1930-ean Landerretche-ren ordain hartu zuten Eskualzaindian.

Pilotazale gaitza zen, baina eskualzale porrokatua ere bai. "Eskualdun berrian", "Eskualdunean", "Gure Herrian", "Argian", "Euzkadin" badu zer-bait ager-arazirik, ichtorio, "zer eta zer", pilotarien berri, eta nik dakita.

Haren liburu ezagutuena: "Kantari Berria", "Ichtorio Saindua", "Kati-chima", "Ama Maria Pasioneakoa", "San Frantses", "Bahnar Deitu Salbaiak", "Atsotiz, Zuhur-hitz eta Erran Zahar". Aipatu behar litazke Dassance jauna-rekin bildu chori eta landare izenak.

"Zerbitzari" zuen izen-ordea, nahiz bertze izen-orde batzu erabili dituen hala nola "Haur Prodigoa" eta "Azkaindarra".

1961-eko maiatzean joan zitzaikun Garalda-ko Ama Birjinaren beila bi-haramunean, goizean goizik, harrigarriko jende-keta bildu baitzen ondoko estehenean haren ehortzetako.

P. L.

NIKOLAS ORMAETXEA "ORIXE" (1888-1961)

1888 abenduaren 5-ean jaio zan Iriarte Orexa'ko errian. Añorga-n il 1961 agustuaren 10-ean.

Bereala amak, sortu ziran iru aurak ezin bi titiaz azi zitzakela ta Nikolas mutikoa Uitz'i'ko Errekalde etxera iñudearengana eraman zuten Asuntxi amandre onaren ardurapean.

Geroztik ez zituan saltzeko ez iñude, ez Asuntxi, ez Errekalde ta ez Uitz'i'ko erria. Napar kòskortzat jotzen zuan bere burua ta iñoiz Orexa'ra era-